# ARATUSTEAK

*Ostiralean, hilak 9, Ikastolako Aratuste jaia ospatuko dugu eta ikasleak desfilean abiatuko dira Ikastolatik Herriko Plazaraino.*




## EGITARAUA

**14:30** *Mozorroen prestakuntza Haur eta Lehen Hezkuntzako gelatan; jolasak, musika, apainketa, mozorroa jantzi...*

**15:15** *Lehen Hezkuntzako ikasleak Ikastolako sarreran elkartuko dira Bigarren Hezkuntzako taldearekin.*

**15:30** *Haur Hezkuntzako taldearekin elkartuko dira.*

**15:45** ***Desfilea.*** *Kontuan hartu ikasleak ikastolako hezitzaileekin doazela, hortaz, familiei mugak eta arauak errespetatzea eskatzen dizuegu.*

**jarr.** ***Dantzaldia Herriko plazan.***

**16:30** ***Amaierako txokolate jana eta "Mirikirekin jolasean" emanaldia Herriko Plazan.*** *Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleak 16:30 arte tutoreekin egongo dira. Haur Hezkuntzakoak lehenago jaso nahi izanez gero, tutoreari jakinarazi.*

## 3-4-5 URTE

- *Jantokiko ikasleek oinarrizko arropa jantzita ekarriko dute goizetik eta mozorroaren gainerako elementuak poltsa batean izenarekin.*
- *Jantokiko erabiltzaileek ez dute lokuluxkarako tartertik izango.*
- *Gogoan izan haurrek ostiral arratsaldez gelan utzitako arropak asteartea arte Ikastolan geratuko direla.*

## LAUDIO TXIKI

- *Ikastolan eguerdi osoa emanda desfilean parte hartuko dutenek mozorroa poltsa batean ekarri beharko dute goizean.*
- *Desfilean parte hartuko duten haurrak 15:15ean egon behar dira Ikastolan. Ordu horretan haur bakoitzeko heldu bat behintzat egon beharko da zain Laudio Txikiko atean haurrarekin batera desfilean parte hartzeko.*

## LEHEN HEZKUNTZA

- *Ostiralean ez ekarri motxilarik Ikastolara.*

## TRAFIKOA

- *Ikasleak desfilean ikusi eta guztiok lasai parte hartu ahal izateko, ostiralean ikastolara autorik ez ekartzea eskatzen dizuegu.*

## GARRAIOA

- *Garraioa erabiliko duten ikasleek banatu zaien aparteko komunikazioa bete beharko dute.*

## EURIA EGINEZ GERO

**15:30** ***Haur Hezkuntza****ko etapak bere jolastokian bertan egingo du desfilea, adinaka antolatuta:*
*15:30etik 16:00etara Laudio Txiki*
*16:10 3 urte*
*16:20 4 urte*
*16:30 5 urte*
*Familiak bere adineko desfilea ikusi, umea jaso eta jolastokitik aterako dira beste mailakoei tokia uzteko.*
*Behar duenak betiko orduan haurra jaso ahalko du, 16:30ean.*

**15:45** ***Lehen Hezkuntza****ko desfilea Bigarren Hezkuntzako kiroldegian. Familiak 16:00ak aldera sartu ahalko dira eta ikusteko toki bat prestatuko zaie.*
*Emanaldia eta txokolate jana LHko kiroldegian izango litzateke.*